

## IKERKUNTZA UPV/EHUREN SAILETAN SUSTATZEKO DEIALDIA (2020-2022): II Fasea

### Ebaluaketarako onartutako eta baztertutako eskaeren behin-betiko zerrenda

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen oniritzia jaso ondoren, eta Gobernu Kontseiluak onartu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak honako deialdi hau argitaratu zuen: **"IKERKUNTZA UPV/EHUREN SAILETAN SUSTATZEKO DEIALDIA (2020-2022)"**.

Behin II. Fasera eskaerak aurkezteko epea bukatuta, Ikerketa Errektoreordetzako Ikerketaren Kudeaketa Zuzendaritzak aurkeztutako eskaerak berrikusi ditu.

Tramite horrekin amaitutakoan, onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda argitaratu zen IAEn webgunean, zuzenketak egin behar zituzten eskaerak zehaztuz ere.

Zuzenketak egiteko epea amaituta, IAEn ERABAKI DU onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda bere webgunean argitaratzea, ebaluazio fasera igarotze aldera.

Behin betiko baztertutako eskaerak dira deialdiak ezarritako onarpen baldintzaren bat bete ez dutenak, ebazpen honekin batera doan zerrendak zehazten duen bezala.

Helegiteak:

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere aldi berean erabilita:

1.- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazioarekiko errekurtsio hau jarriz gero, eta errekurtsioa jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsioa ezetsi dela ulertu beharko da administrazioaren isiltasunagatik; eta, honela gertatuz gero, datorren idatz zatian ezarritako auzibidera jotzeko aukera izango da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsioa ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 40/2015 legea eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legea).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 8.3 eta 46. artikulua).

Leioa, 2020ko uztailaren 9a.

IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA  
Ikerketaren arloko Errektoreordetza

### Onartutako Sailak

Kodea	Saila	Eskaera zenbakia
302	Klinika eta osasunaren Psikologia eta Ikerketa-metodologia	DEP20/52
310	Ingeniaritza Energetikoa	DEP20/53
320	Matematikaren, Zientzia Esperimentalen eta Gizarte Zientzien Didaktika	DEP20/54
321	Filosofia	DEP20/55
332	Metodo Kuantitatiboak	DEP20/56
334	Ekonomia eta Kudeaketa	DEP20/57
335	Analisi Ekonomikoa	DEP20/58
336	Kazetaritza	DEP20/59
337	Soziologia eta Gizarte Langintza	DEP20/60
340	Polímeroak eta Material Aurreratuak: Fisika, Kimika eta Teknologia	DEP20/61
342	Matematika Aplikatua, Estatistika eta Ikerkuntza Operatiboa / Matematika	DEP20/62
343	Geologia	DEP20/63
344	Kimika Organikoa eta Ez-organikoa	DEP20/64
351	Filologia eta Historia	DEP20/65

### Baztertutako Sailak

Kodea	Saila	Baztertzeko arrazoia
4	Prebentzio Medikuntza eta Osasun Publikoa	Ez aurkeztua
12	Ekonomia Historia eta Ekonomia Erakundeak	Ez aurkeztua
32	Ekonomia Aplikatua V	Ez aurkeztua
37	Ekonomia Aplikatua II	Ez aurkeztua
60	Fisika Aplikatua II	Ez aurkeztua
63	Materia Kondentsatuaren Fisika	Ez aurkeztua
96	Hezkuntzaren Teoria eta Historia	Ez aurkeztua
110	Politika eta Administrazio Zientzia	Ez aurkeztua
111	Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia	Ez aurkeztua
122	Estatuaren Eliza Zuzenbidea eta Erromatar Zuzenbidea	Ez aurkeztua
123	Enpresa Zuzenbidea	Ez aurkeztua
125	Zuzenbide Zibila	Ez aurkeztua
159	Eskultura	Ez aurkeztua
162	Konstituzio Zuzenbidea eta Gizarte eta Politika Pentsamenduaren eta Mugimenduen Historia	Ez aurkeztua
172	Fisika Teorikoa eta Zientziaren Historia	Ez aurkeztua
218	Hezkuntzako Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoak	Ez aurkeztua
234	Artea eta Teknologia	Ez aurkeztua
303	Gizarte Psikologia	Ez aurkeztua